


Zeruko Argiatik Argiara: Ibilbide historikoa eta proiektuaren argazki eguneratua

Agirre, Antxoka; Díaz Noci, Javier; Alvarez Berasategi, Amaia

1. Sarrera

Argia astekariak 2019. urtean ehun urte bete ditu. Ibilbide luze bezain oparoa, eta goraberatsua, izan duen aldizkaria dugu, bakarrik Ipar Euskal Herriko *Eskualduna* eta bere jarraitzailea izan den *Herria* aldizkariekin konpara daitekeena. Gaur egungo *Argiak* ere izen ezberdinak izan ditu. Epe ezberdinak eta izaera oso ezberdineko argitalpena izan da historian zehar, adieraziko dugun bezala. Izan ere, izen bereko aldizkari batzuk izan dira euskarazko kazetaritzaren historian zehar, eta denak ez dira izan gaur lehen mendeurrena ospatzen duen *Argiaren* leinukoak. Bai, ordea, nola edo hala haien ondorengoak, nolabait. Ezin ozenago idatzi du gaurko *Argiaren* zuzendaria izan zen

Elixabete Garmendia kazetariak: gaur egun astero Gipuzkoan egin eta paperean zein sarean argitaratzen den *Argia* 1919an Iruñean hango kaputxinoek taxutu zuen *Zeruko Argiaren* ondorengo zuzena da, baina,aldi berean, “Pizkundeko *Argia* (1921-1926) astekariaren mantxeta hartuz” nola edo hala hura ere arbaso eta eredu bada, eta “beraz, bi iturri horien batura da egungo *Argia*” (Garmendia, 2019). Bat gatzoz iritzi horrekin, eta artikulua honen lehen puntuan, hain zuzen ere, hari horri helduko diogu eta bi aldizkariaren (eta *Argia* izena zeraman besteren bat ere aipatuko dugu) historia garatuko dugu, bi eredu horiek gaurko astekariaren izan duten garrantzia azpimarratuz. Dударik gabe, Gerra Zibilaren aurreko *Zeruko Argia* (Iruñea, 1919-1936) erlijiosoa eta *Argia* (Donostia, 1921-1936) informaziokoa,



eta haiekin lotuta dauden hainbat ekintza aztertu eta adierazi gabe ezin da bere osotasunean eta bere konplexutasunean gaurko Argia behar bezala ulertu.

Horregatik lan hau bi puntutan banatuko da, elkarrekin lotura dutenak, ez bairik gabe. Lehenengoan, Argiaren (eta Argia izena eraman duten euskal aldizkari guztien) historia azalduko dugu, beti ere gaurko euskarazko aldizkarietan zaharrena dela proiektatuz: bide horiek guztiek gaurkora iristen dira, nolabait esateko. Bigarren partean, gaur egun Argiak duen garrantzia eta pisua adierazten saiatuko gara. Azkenik, ondorio batzuk eskainiko ditugu, lanari batasuna eman nahian.

2. Argiaren historia

Gure egunotan astero-astero agertzen den Argia izeneko astekariak, aipatu dugun eta gauza jakina den bezala, Zeruko Argia astekarian du jatorria. Momentu zehatz batean, 1980an alegia, erabat eta betirako laiko bihurtu zen garaian, Zeruko hori galdu zuen izenburu edo mantxetan (ez, ordean, enpresaren izenean, Zeruko Argia S.L. mantendu baitzen) eta Argia bakarrik gelditu.

Zeruko Argia aldizkari erlijiosoa zen, eta elizgizonek asmatua eta gidatua. Iruñeko kaputxinoak sortu zuten 1919. urtean. Berriz ere Elixabete Garmendiak ezin hobeto dienez, “euskarazko prentsak ez ditu sekula tentatu diru inbertitzai-leak” (Garmendia, 2019). Arrazoi horregatik, Gerra aurrean behintzat -Gerra ondoren ere bai, gero ikusiko dugun bezala- hainbat euskarazko aldizkariaren atzean elizgizonak zeuden.

Sorrera urtea bera ere ez da kasualitate bat. Gogora dezagun 1918an eratu zela Eusko Ikaskuntza, eta hurrengo urtean, 1919an alegia, Euskaltzaindia sortu zen. Bi erakunde horien sorrera, Lehen Mundu Gerraren ondoren, sekulako bultzada izan ziren euskal kulturarentzat eta euskararentzat berarentzat. Euskaltzaindiak, gainera, sentsibilitate handia erakutsi zuen kazetaritzak eta egunkari zein aldizkariak euskara sendotzeko izan zezaketen eraginarekiko. Izan ere lehen euskaltzainen artean ere gehienak euskarazko aldizkariak ziren. Urte hartan bertan, bada, kaputxino nafarrek Zeruko Argia sortu zuten. Aurretik bazeuden beste batzuk gisakoak, esate baterako 1912tik Zornotzak apaiz euskaldun talde batek atontzen zuen Jaungoiko-Zale izenekoak.



Zeruko Argjaren lehen zuzendaria Damaso Inza izan zen, bera ere lehen euskaltzainetako bat, 1920ean izendatua. Inza trebatua zen euskal aldizkariak zuzentzeko lanetan, lehenago *Irugarren'go Prantziskotarra* zuzendu baituzen. Astekaria ez zen propio aldizkari nafar bat, besterik gabe. Jakin badakigu 1921ean Gipuzkoan eta Bizkaian Nafarroan baino gehiago saltzen zela. Hizkuntz eredia, horregatik nahiko bateratua zen, eta batik bat Gipuzkoari -eta gipuzkeraz hitz egiten zutenei- begiratzen zien (Díaz Noci, 1994). Urte hartan bertan ere, 1921ean, beste aldizkari erlijioso bat, euskara hutsez, hasi zen argitaratzen Gipuzkoan: *Aranzazu*. 1922tik *Zeruko Argja* hasi zen erlijiosoak ez ziren gai batzuek mintzatzen -gainontzeko euskal aldizkari gehienak bezala, batik bat aipatutakoak- eta “arrisku sobietarrari” aurre egin zion “Naskaldia” izeneko atal batean. *Zeruko Argjaren* eredia Frantziatik zetorren, eta behin baino gehiagotan aitortu zuten hura zen zen: *La Croix de Dimanche*.

Euskaltzaindiak, bitartean, 1920ko abenduaren 11ko gutun batean irakur daitekeenez, akademian bertan idazgela bat sortzea proposatu zuen, honako helburuaz: “Suministrar original vasco de alguna altura literaria a seis de los siete diarios de la Villa [de Bilbao]”. Gero zerbitzua Donostia, Gasteiz eta Iruñeko egunkariei eskaintzea zen asmoa. Milana pezeta eskatzen zien Euskaltzaindiak Bilboko sei egunkari horien arduradunei lauzpabost kazetariri soldata ordaintzeko. Horrela etorkizuneko euskara hutsezko egunkari bat bideratzeko oinarriak ezarri nahi zituen. Ez zen horrelakorik gauzatu ahal izan. Badirudi Bilboko erdal egunkari haiek ez zutela onartu Euskaltzaindiak eskatzen ziren dirua ordaintzea, eta akademiaren kontura joan ziren euskarazko originalak idatzi eta bidaltzeko gastu guztiak (Díaz Noci, 2012: 153). Gerora, 1929an Jose Maria Agirre *Lizardik* eta beste batzuek proposatu zuten egitasmoa ere bertan behera gelditu zen, eta euskara hutsezko lehen egunkaria *Eguna* izan zen, 1937ko lehen sei hilabetetan, Gerra garaian, Bilbon agertu zena. Bigarrena, 1990. urtean eta neurri handi batean *Argjaren* eskutik sortua, *Euskaldunon Egunkaria* izango zen.

Esan bezala, Euskaltzaindiaren lehen asmo hartatik gertuen egon zen aldizkaria, dudarik gabe, Donostiako *Argja* izan zen (haren historia Díaz Noci, 1989). Donostian sortu zuen euskaltzale talde batek 1921ean, haien artean Bittor Garitaonandia jesuita bizkaitarra, Ander Artzeluz, Ambrosio Zatarain eta Rikardo Leizaola inprimatzailea aurkitzen zirelarik. Gregorio Mujika ere hor zegoen. *Argja* astekariak egunkari itxura zuen, eta izatez, esan bezala, *Lizardi* eta beste batzuk 1929an egunkari bihurtzeko ahalegina egin zuten, zero zenbaki bat ateratzera iritsi zirelarik. Nolabait, *Argiak* Ipar Euskal Herrian *Eskualduna* astekariak zuen eragina izan nahi zuen Gipuzkoan eta Hego Euskal Herri osoan. Ikastolak ere sortuak ziren, eta umeak euskaraz alfabetatzen hasiak ziren. Azkuek berak sortu zituen lehenengoak Bilbon mende hasieran, baina mugimendu sendoa Tolosa eta Donostian hasi zen 1920.eko hamarkadan, gero Primo de Riveraren diktadurapean gelditu, Espainiako Bigarren Errepublikan berriz ere berpiztu eta Gerra Zibilarekin desagertzeko. Donostiako *Argjaren* garrantzia oso handia izan zen euskal kazetaritzan. Lehenik eta behin, irakurle goi mailako bat lortu zuen, momentu onenetan 10.000 bat mila ale banatzen baitziren. Hizkuntz eredu bateratu bat ere egiten lagundu zuen. Beterriko gipuzkera oinarri hartuta, Inazio Eizmendi bertsolari eta kazetariak 1990ean baieztatu zigun aldizkariari bidaltzen ziren testuak errepasatu, zuzendu eta bateratu egiten zituela Do-



nostiako bulegoetan zegoen kazetari-talde batek, Artzeluzen (eta ziur aski Joseba Zubimendiren) gidaritzapean. Hizkuntz eredu hori (ikus Díaz Noci, 1994) *Resurrección María de Azkue* proposatu zuen *gipuzkera* osotutik gertu zegoen, eta *Argiaren* orrialdeetan defendatzaile sutsuena Bittor Garitaonandia bizkaitar eta bizkaieraduna izan zen. Izan ere, Azkueren *Gipuzkera osotua* liburuan, 1932an, aitortu zuen idea hamarkada bat lehenagotik zetorkiola eta Garitaonandiak proposatu zuela. Ander Artzeluzek eta Joseba Zubimendik Radio San Sebastián emisoratik lehen euskarazko irratsaioak aieratu zituzten 1925 urteaz geroztik (Díaz Noci, 1991). 1927an lehen euskara hutsezko komikaldizkaria argitaratu zuen *Argiak*, Abdón Alaiza arabarraren proposamena hartuz. Gauzatu zen horrela urte batzuk lehenago, 1923an, *Zeruko Argiak* proposatu zuen umeentzako aldizkari baten egitas-

moa, Iruñeko kaputxinoek Euskaltzaindiari proposatu ziotena eta argitaratu ez zena (haren ondoren, *Zeruko Argia* Otermin delako batek marraztutatako historieta batzuk argitaratzen hasi zen "Ikasi! Ikasi!" izenburu ezin esangutsuenaren pean). 1929an lehen euskara hutsezko egunkaria bihurtzeko zorian egon zen, *Lizardiren* proposamena onartu izanez gero. Haren ordez, errotatiba berria erosi eta *newsmagazine* itxura ere hartu zuen azaleko orrialdeetan behintzat, argazkiei sekulako garrantzia emanez, ordura arte inongo euskal aldizkarik eman ez ziena. Ideologikoki ere *Argiak* abertzaletasunaren aldeko lana egin zuen. Hasiera batean kutsu ideologiko argirik ez bazuen ere, behintzat inongo alderdi politikoren alde ez zen agertu euskal alderdi guztien -batez ere, eskuinekoak- batasuna nahi zuelako, Primo de Rivera jeneralaren diktadurapean bizirik mantendu zen, eta Espainiako Bigarren Errepublikan, aldiz, Eusko Alderdi Jeltzalearen orbitan egon zen, batez ere Euzko Nekazarien Bazkuna sindikatuaren alde agertu baitzen (nola edo hala, bere bozeramalea izan zen) eta Estatutoaren aldeko kanpainian sutsuki lan egin baitzuen.

Bitartean, *Zeruko Argia*, eta beste aldizkari erlijiosoak ere, batez ere *Aranzazu* baina bereziki *Jaungoiko Zalaren* ondorengoa zen *Ekin*, hasi ziren sozialismo, komunismo eta Errepublikaren aurka agertzen 1930.eko hamarkadan. *Karmen'go Argia* eta *Arrati'ko Deya* ere halakoak izan ziren. Polarizazio politikoa nagusitu zen, *El Mensajero del Corazón de Jesús* Bilboko aldizkarian esaten zen bezalaxe: «Todas las ideologías y los sistemas sociales se reducirán a dos: comunismo o catolicismo, Roma o Moscú». "Irakurgai ona"ren alde ere lan egin zuten, eskuineko aldizkari katoliko europar gehienek ildotik. "Prentsa ona", beraz, katolikoa zen bakarrik, ez liberala, laikoa eta, askoz gutxiago, ezkertiarra. Mezu hori Iruñetik kan-

pora ere hedatzen zen: Gipuzkoan banatzen zen aldizkaria Donostian, Hondarribian, Tolosan, Soraluzen, Arrasaten, Deban eta Villabonan; Bizkaian Lekeition, Algortan, Plentzian eta Portugaleten, eta Araban Gasteizen eta Gaztelun. Salmentak baina inportanteagoak ziren, aldiz, harpidetzak, eta ezagutu ere egiten ditugu: Gipuzkoako hogeita sei herritan bazeukan *Zeruko Argiak* harpidetzarik, eta Nafarroako hamahiru herritan ere bai. Bizkaian, aldiz, sei herritara iristen ziren harpidetzak, eta Araban Gasteizera ere bai (Díaz Noci, 1995: 141).

Eskuindarra bazen ere, *Zeruko Argia* desagertu, edo desagerrarazi egin zuten 1936ko uztailan, Gerra Zibila hasi bezain laster. Erbestean *Argia* izeneko beste aldizkari bat agertu zen, *Zeruko Argiarekin* zerikusirik ez zuena, euskara hutsez, lehenago Caracasen eta gero New Yorken, 1946tik 1948ra. Lehen hutsunea izan zuen orain ehun urte betetzen duen aldizkariak. Ia hogei urte, 1954 arte ezin izan baitzen berriz ere argitaratu. Garai berri honetan, berriz ere aldizkari erlijioso huts gisa, Bonifacio de Leizama izan zen lehen zuzendaria. Aurelio de Echarri-Aranaz izan zen bere alboan zegoen zuzendari artistikoa, irudiei garrantzi handia eman baitzien aldizkariaren bigarren aro hark. Haren azpititua *Erlijiozko aldizkari edo errebista, edergarriduna, euskeraz egiña, Aita Kaputxinoek argitaratua* zen, eta Inazio Eizmedi *Basarri* zein Gerra aurreko *Ekin* aldizkarian (eta Gerren ondoren BBCn ere) aritua zen Gabriel Manterola bertan zeuden. Berriz ere harpidetza de-xente lortu zuen aldizkariak, kasu egiten badiogu *Zeruko Argiak* berak esaten zuenari: 1958an, lau urte baino pasatu ez zirenean, 5.000 harpide bazeukan. Ez zen kopuru makala euskara hutsezko aldizkari erlijioso batentzat hain denbora latzetan, Hortik aurrera baina, arazoak izan zituen *Zeruko Argiak*. Hurrengo bi urteetan, 1959-1960an, hiru zenbaki baino ez zituen argitaratu (agintari frankistek ere aldizkariaren heren bat erdaraz agertu behar zela inposatu zuten), eta 1960tik 1963ra agertu gabe egon zen. Bigarren hutsunea, beraz.

Berriz agertu zenean, frankismoaren bigarren aroan, eliza katolikoaren (eta Euskal Herriko eliza katolikoaren) hainbat sektore frankismotik urrunduak ziren, eta bide berriak prestatzen hasiak ziren. Poliki-poliki, erlijioarekin batera bestelako edukiak ere agertzen hasi ziren (baita politikarekin lotuak ere) hirugarren aroko *Zeruko Argiaren* orrialdeetan. Orduan Agustin Ezeiza zen zuzendaria, eta gerora hain ezagunak izango ziren izen batzuk aurki daitezke orduko *Zeruko Argian*: Jose Migel Zumalabe, Carlos Santamaría, Rikardo Arregi, Xabier Gereño, Gabriel Aresti, Luis Alberto Aranberri *Amatiño*, Joxe Azurmendi, Ramon Saizarbitoria, Edorta Kortadi, Xabier Lete, Anjel Lertxundi. *Zeruko Argia* ez zegoen bakarrik euskal





kultura eta kazetaritzaren garai berrietan. Beste aldizkari batzuk, esate baterako *Anaitasuna*, hasiera batean erlijio katolikoaren sektore euskaldunetatik sortuak, garai berrietara egokitzeko ahaleginak egin eta, Gerra aurreko *Argia* bezalako ereduak debekatuta, *newsmagazine* bihurtzeko bideari ekin zioten.

Eredu informatzailea nagusitu zen 1970.eko hamarkadan, frankismoaren azken urteetan. Ordurako beste faktore bat sortua zen: Eusko Alderdi Jeltzalea ez zen alderdi abertzale bakarra, eta ezker abertzalea ere sortu zen. Erlijioso hutsak ziren aldizkari batzuk panorama berri horretara egokitu ziren, batez ere hiru: *Goiz Argi*, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*. Aztertzen ari garen aldizkariarentzat beste garai bat hasi zen 1976an. Kaietano Ezeiza zen zuzendaria, eta idazle-kazetari nagusiak Mikel Atxaga (gero *Deia* egunkarira joan zen),

Donato Unanue eta Luis Alberto Aranberri *Amatiño* (gero sortuko zen euskal irrati-telebistara, EITBra, joango zen). Elixabete Garmendia sartu zen handik gutxira, 1976ko udan, Aranberrik aldizkaria utzi zuenean. Urte hartan bertan kanpaina historiko bat antolatu zen: Euskal Prentsaren Urtea. Orduan *Anaitasunaren* zuzendaria Joan Mari Torrealdai zen (*Jakin* aldizkari kulturaletik zetorren). *Anaitasunak* nolabait bidea erakutsi zuen. Torrealdaik aldizkariaren formatua eta ideologia aldatu zituen: erlijiosotik abertzale sozialistara pasatu zen. 1977an frantsiskotarrek utzi zuten aldizkariaren jabetza eta enpresa batek hartu zuen ardura: Laundegi. Eredu espainiarretik aldendu eta tradizio euskalduna berreskuratzea zen Torrealdairen idea, eta euskal kazetaritza profesional bihurtzea. *Goiz Argik* ez bezala, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkariak bete-betean onartu eta bultzatu zuten euskararen eredu berria: euskara batua.

1979an *Zeruko Argian* ere mugimendu ezin garrantzitsuagoak hasi ziren. Kaputxinoek erabaki zuten aldizkariaren jabetza uztea (ordurako haien presentzia nahiko testimoniala bazen ere, ikus *Argia*, 1984ko urtarrilaren 15eko zenbakia, 25. orrialdea), eta langile-kooperatiba bat antolatu zen, Joxemi Zumalabe eta Joxe Mari Ostolazaren ekimenez, batik bat. Kaputxinoek, hala ere, hainbat baldintza ezarri zituzten: izena mantentzea, 600.000 pezetatako zorra kitatzea, eta egoitza aldatzea. Hurrengo urtean beste kanpaina bat antolatu zen, "Prentsa euskaraz" ("Euskal prentsarik gabe ez dago Euskal Herririk"), eta orduan, 1980ko urriaren 2an, hurrengo garaiko lehen zenbakia kaleratu zen, Gipuzkoako egoitza berrian egina. *Argia* zen, *Zeruko* galdua. Bi emakumek, Elixabete Garmendiak eta Pilar Iparragirrek, zuzentzen zuten astekaria. Hala ere, kazetari batzuk beste komunika-

bide zein zereginetara joan ziren, *Argia* utzita, Gorka Reizabal eta Pilar Iparragirren kasuak, esate baterako. 1982ko urtarrilaren 24tik hiru hilabeteko etenaldia gertatu zen eta astekaria kalera irten gabe egon zen.

Hurrengo urtetik aurrera, hala ere, euskal prentsaren panoraman aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. *Anaitasuna* desagertu egin zen betirako, ezinezko gertatu baitzen "Prentsa euskaraz" kanpainaren helburua lortzea: 4.000 harpidedun bereganatzea. *Anaitasunaren* langileek bat egin zuten *Argjakoekin*. *Argia* izango zen aurrerantzean euskara hutsez argitaratzen zen astekari bakarra. Beste aldizkari batzuk ere desagertzen joan ziren: *Zabal*, *Zehatz*, Leopoldo Zugazak sorturiko *Gaiak*, ETA politiko-militarretik gertu zegoen *Hitz*, EAJtik gertu zegoen *Euzkadi*, ESBtik gertu zegoen *Garaia* eta PSEtik gertu zegoen *Berriak*, denak elebidunak (gaztelania oso nagusi). Euskara hutsezko egunkariirik ez zegoen bitartean, urte gutxiaren barruan, neurri handi batean *Argiari* esker, *Euskaldunon Egunkaria* agertu bazen ere. Ordurako ere, harpidetza gehienak (ia %60) Gipuzkoan zeuden.

Merezi du historiako bigarren euskara hutsezko egunkariaren sorreran *Argia* astekariak izan zuen garrantzia gogoratzea. 1986an, lehendakaria Jose Antonio Ardanza jeltzalea zenean, euskara hutsezko egunkari batentzako (edo batzuentzako) bidea prestatzearen dirulaguntza-programa bat onartu zuen. Urte batzuk lehenago Trantsizioan sorturiko bi egunkari (ia erdara hutsezko) abertzaleak, bata EAJren ingurukoa, *Deia*, beste ezker abertzalekoa, *Egin*, ateratzen zituzten enpresei (Iparragirre eta Orain) eskatzen zituzten dirulaguntzei ezetza eman ondoren, Eusko Jaurlaritzak euskarazko merkatuari buruzko ikerketa bat eskatu zuen. Bitartean, egunkari itxurarekin, gutxienez 32 orrialderekin, goizekoa izanik, Euskal Herri osoan banatzekotan, gutxienez sei kazetari kontratatu eta 10.000 aleko tirada izango zituzten astekariak kaleratzeko dirulaguntza handi samar bat agintzen zuen lehiaketa jarri zen martxan. Hiru enpresa aurkeztu ziren: Orain, Iparragirre eta Zeruko *Argia*. Lehenengo biek dirulaguntza jaso eta *Hemen* eta *Eguna* argitaratu zituzten 1986tik 1990ra arte. *Argia* argitaratzen zuen Zeruko *Argia* SL enpresak ez zuen dirulaguntzarik jaso.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak 1988an CIES enpresari enkargua eman zio euskara hutsezko egunkari bat (edo batzuk) argitaratzeari buruzko bidegarritasuna ikertzeko txosten bat egiteko. Konklusio nagusiak hauek ziren: euskarazko egunkari bakar baterako merkatua baino ez zegoen, eta irakurleen profila halakoa zen: gaztea, ikasia, kultur maila altukoa, abertzalea, politikazalea eta nagusiki ezker-tiarra. Momentu hartan gehienez 88.000 bat lagunek irakur zezakeen euskaraz, eta horietatik 26.000 ziren euskarazko egunkari bat erosteko prest agertzen zirenak. Hasiera batean, Eusko Jaurlaritzak ez zituen txosten horren ondorioak argitaratu, baina *Argiak* txostena eskuratu eta zabaldu egin zuen. Hortik aurrera, bi egitasmo oso ezberdin abiatu ziren. Bata, pribatua, Egunkaria Sortzen izenekoa. Bestea, publikoa, Jose Ramon Beloki kazetari eta EAJko politikaria arduradun zuena. Hasiera-hasieratik tirabira latzak azaleratu ziren.

Egunkaria Sortzen ondu zen 1989ko azaroan Euskal Prentsaren Egunean. Euskaltzale talde batek sortu zuen: Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdai, Nerea Azurmendi, Josu Landa, Txema Auzmendi, Carlos Santamaria, Karmele Aierbe, Iñaki Zabaleta, Koldo Izagirre, Hasier Etxeberria, Luzien Etxezaharreta, Jon Bastera eta Joxemi Zumalabe. Haien artean, *Argiarekin* ondo lotutako lagun batzuk. Jo-

xemiel Zumalabe, esaterako, Zeruko Argia SAL-en presidentea zen, eta Iñaki Uri aldizkariako kazetaria nahiz Argiaren administrazio-kontseiluko kidea. Bera izan zen hain zuzen Eusko Jaurlaritzaren txostena argitara eman zuena. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak bere proiektua prestatzeko talde bat osatu zuen: Belokiz gain *Egin*eko Jon Basterra, *El Corre*oko Ignacio Irizar, *Diario Vasco*ko Felix Ibargutxi nahiz Imanol Unzurrunzaga eta *Argiare*kin zerikusia zuten Elixabete Garmendia, momentu hartan EITBko kazetaria zena, zein Pello Zubiria, *Argiaren* orduko zuzendaria. Azkenean, egitasmoa hau ez zen gauzatu, baina Egunkaria Sortzen-ekoa bai. 1990eko abenduaren 6an *Euskaldunon Egunkariaren* lehen alea argiratu baitzen. Nolabait historia errepikatu zen: Gerra aurrean Donostiako *Argia* bihur zitekeen lehen euskara hutsezko egunkaria, baina ezin izan zen. XX. mende bukaeran, aldiz, beste *Argia* batek, astekaria baita, lortu zuen euskal egunkari bat ateratzea. Historiako bigarren euskara hutsezko egunkariaren lehen zuzendaria *Argiatik* zetorren Pello Zubiria izan zen.

Handik urte gutxira, beste erronka bat planteatu zen: Internet edo, hobeto esanda, World Wide Web. Honetan ere aitzindaria izan zen *Argia*. 1997an aldizkarian 1963tik argitaratutako elkarrizketa guztiak biltzen zituen CD-ROM bat osatu zuten, eta handik gutxira WWWko edizio bat prestatu zuten, *Sareko Argia*, aldizkariaren edukiez gain euskal kulturari buruzko *newsletter* edo berripaper bat, *Hari@Buletina*, eskaintzen zuena. 2.300 harpide baino gehiago bereganatu zituen. Hamar urte baino gutxiagoan, 2006an, *Sareko Argiak* 390.000 HTMLko orrialde baino gehiago ematen zituen. Alderaketa gisa aipa daiteke 1991n 5.500 bat erosle zituela paperezko *Argiak*.

Horrela, *Argia* XXI. mendean sartu zen. Bere eragina askoz handiagoa da orain 1919an aldizkari erlijioso gisa agertu zenean baino. Gerraren ondoren berriz ere agertzea lortu zuen, oso garai latz eta zailetan, eta diktadorea hilda, laikotu egin zen eta erabat informatibo bihurtu. Are gehiago, hainbat ekintzatan parte hartu du, beharbada inportanteena *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera. Eta Internetera jauzi egiten ere jakin izan zuen bere momentuan.

3. XXI. mendeko *Argia*: aldizkari zaharraren izpiritu berritzailea

XX. mendean aldizkariak testuinguru konplikatuak eta hainbat gorabeherari aurre egin behar izan bazien, XXI. mende hasiera ere ez zitzaion samurra suertatuko. Mende hasierarekin trantsizio digitala geroz eta nabarmenagoa suertatu zen kontsumo ohituretan, papereko prentsaren negozio ereduaren krisia ekarri zuen honek, eta 2008an eman zen mundu mailako krisi ekonomikoak kinka larrian jarri zuen sektorea. Fenomenoak inguru gertukoan izandako dimentsioa ilustratzeko bi datu: 2008tik 2013ra 284 hedabide itxi ziren Espainiar Estatuan eta 9.471 kazetarik galdu zuten euren lanpostua (APM, 2013: 85).

Euskaraz eta katalanez diharduten hedabideei krisiak nola eragin zien eza-gutu eta honen aurrean abiarazi zituzten estrategien berri izateko 'Estrategia berritzaileak euskarazko eta katalanezko hedabide pribatu nagusietan 2008-2017' ikerketa proiektuaren baitan 2017an *Argiaren* lan taldeko hainbat kide elkarrizketatu ziren: Estitxu Eizagirre (zuzendaria), Gorka Bereziartua (erredakzioa), Bego

Zuza (kudeaketa alorra), Karlos Olasolo (arlotz komertziala) eta Lander Arbelaiz (teknologia alorra)¹. Eta guztiak ere bat datoz krisiak bete-betean harrapatu duena komunikazio enpresa handien eredu delako seinatzerakoan: “Gure helburua ez inoiz izan irabaziak izatea, euskarazko kazetaritzaren baitako eskaintza garrantzitsu bati eustea baizik (...) Krisiarekin irabaziak izateari utzi diotela batzuek? Bada, ongi etorriak, guk ez ditugu izan inoiz” (Zuza, 2017).

Mehatxu baino aukera gisa bizi izan dute testuinguru hau. Honela, esaterako, lan-taldea egonkortzeko balio izan diela dio Bego Zuzak:

“Gu izan gara beti harrobi bat². Lanera etortzen zen gazte bat, formatzen zen eta gero enpresa handiago bat etortzen zen, kazetaritzatik edo edozein arlotatik eta eraman egiten zuen. Krisiak zer ekarri du? Ba inor ez dala inoren bila etorri eta hemen dagoen jendeak ulertu duela hemen kristoren aukera daukala beste balore batzuekin bide oso interesgarri bat egiteko” (Zuza, 2017)

27 kide ditu lan-taldea, eta multzorik handiena krisiaren bezperatan, 2006 eta 2007 urteen artean sartutakoa da, hain justu. Estitxu Eizagirrek funtsezkotzat jotzen du elkarrekin hamarkada batetik gora egin duen taldearen egonkortasun hau: “Oso garrantzitsua izan da hori, taldeak ulertzea hau bizi osorako proiektu bat izan daitekeela, eta ez gazetetan egiten den zerbait, hipoteka batean sartu bezain pronto atzean utzi beharrekoa” (Eizagirre, 2017).

Testuinguruak ekarri duen beste aukera bat proiektuaren ekarpen sozialaren eta agendaren inguruko gogoetarena izan da: “2008 aurretik arlotz soziala gutxi jorratzen zen. Euskal gatazka eta kulturaren inguruan egiten zen ekarpena baina gainerantzean bidegorria, parke teknologikoa, enpresaria elkartearen adieraz-



1. UPV/EHUko HGH ikerketa taldeak 2016 eta 2017 urteetan burutua UPV/EHU bera, Hekimen euskal hedabideen elkartearen eta Berria komunikazio taldearen finantzaketarekin eta PPV16/02 kodearekin. Euskal hedabideen artean, *Berria*, *Argia* eta *Goiena* aztertu ziren; hedabide katalanei dagokienez, berriz, *Ara*, *El Punt Avui* eta *Vilaweb*. Guztira, 24 elkarrizketa sakon burutu ziren hedabideotako profesionalekin (zuzendari, kudeatzaile, teknologia arduradun eta kazetariak). Argiako elkarrizketa guztiak 2017ko otsailaren 20an burutu ziren.

2. Egia da 1990ean *Euskaldunon Egunkariaren* lan-taldea nagusiki Argian zaildutako kazetariak osatu zuten bezala, 1970eko hamarraldian *Egin* nahiz *Deian* hasi ziren kazetari asko *Zeruko Argiatik* zetozela, edota 1980koan EITBra jo zutela beste batzuk. Historikoki harrobi funtzio hori bete izan du *Argiak* euskarazko kazetaritzan.



pena... genbiltzan. Krisiak, ordea, krisi global gisa gainera, beste gaitegi bat ekarri zuen, oso modu gordinetan gainera” (Eizagirre, 2017). Gogoeta kolektibo baten ondotik gertatzen ari zenaren inguruan argiago kokatu eta inplikatu beharra zutela ikusi zuten. Honela, gai sozialagoak jorratzen hasi ziren, alderdien jokotik askatu eta gizarte mugimenduetara gerturatzen, arazo globalek Euskal Herrian zuten arrastoa jarraitzen, eta ohiko sailen eskematik haratago (politika, ekonomia, gizartea, kirola eta abar) norbere interesekoak ziren gaitan sakontzen (nekazaritza alternatiboa, feminismoa, hezkuntza, ekologia eta abar). Sakontze horretatik ezagutza espezializatua eta kazetaritza konprometituagoa etorri dira: “Prozesu honek balio izan digu kazetari bezala kokatzeko, baina

baita pertsona bezala, enpresa bezala edo proiektu bezala ere... Balore partekatatu batzuk ditugula ikusi dugu, eta horien arabera egin nahi dugula Argiatik egin dezakegun ekarpena” (Eizagirre, 2017). Eta erredakzioko lana nahiz euren eskaintzaren sailetan beharrean gai horien arabera antolatuzera pasa dira: “Jada kontua ez da kazetaritza norbaitek ezarritako kajo nagusietan nola sartzen dugun asmatzea, nahi dugun kazetaritza egin eta guk etiketatzea baizik (...)” (Eizagirre, 2017).

Kazetaritzak bizi duen krisia, sinesgarritasun krisi bat ere bada, komunikazio enpresa handiek, zorretan itota, geroz eta modu gordinagoan erakutsi dute euren finantzaketa bermatzen duen botere ekonomikoarekiko menpekotasuna. Argiako lan-taldeak badaki egindako hautua ez dela guztien gustukoa: “Instituzioetatik esaten zitzaigun ez ginela lerrokatu behar, horrela publiko zabalago bat izango genuela. (Zuza, 2017). Baina sinesgarritasunean irabazten dutena funtsezkoa dela iruditzen zaie: “Barruan landu ondoren erabaki dugu posizio bat hartu nahi dugula, eta ekarpen hori interesatzen zaiona da gure publikoa (...) Argia hartzen duenak badaki gaiak posizionamendu batetik esplikatu dizkiogula, eta agian ez da ados egongo, baina badaki zintzoak garela gure planteamenduetan” (Zuza, 2017).

Egungo Argiaren aurrekarizat jo daitezkeen proiektuek, euskarazko kazetaritza beti ertzekoa eta estuasun artean gauzatutakoa izan arren, berrikuntzarako joera erakutsi izan dute aldi ezberdinetan. Aipatu den bezala, Gerra aurreko Argiak bere sorreratik erakutsi zuen diseinu zaindua eta argazki ugari eskaintzeko bokatzea. Honela, 1934ean erositako puntako errotatiba batekin, kalitate handiko koloretako argazki osaturiko *photomagazine* gisa ere aurkeztu zen garai hartan hain modan zeuden *Life* amerikarra edo *Paris Mach* frantziarraren ereduari jarraituz (Díaz Noci, 2013: 155 eta 171-172). Edo aipatu den bezala baita, 1960ko ha-

marraldiko *Zeruko Argia* ere, bidegile izan zen euskara garai hartan pil-pilean zeuden gai berrietara ireki eta aldizkari informatibo bezala aurkeztuz.

Azken etapako *Argiak* ere bere egingo du izpiritu berritzaile hori. Esan bezala, aitzindari izan 1997an euskara sareratuz, beste papera nahiz digitalaren konbergentzia bideratzen eta sareko eskaintza multimedia gisa gauzatzen ere. 2005 eta 2006 artean, dirulaguntza publikoek izandako beherakada zela eta inguruko hainbat argitalpenek egin zuen bezala webgunea ixtear izan baziren ere (Zuza, 2017), aurrera egitea erabaki eta 2008tik aurrera blog komunitate bat jarri zuten abiarazi zuten: “2008tik aurrera beste martxa bat hartu zuen sarekoak. Kazetari bakoitzari bere bloga jarri zitzaion eta horrekin pasa ginen kultur buletin bat zen webgunetik gutxi gorabehera webgune generalista bat bihurtzera. Aurretik ere hitz egiten zen konbergentziaz, baina hor hasi zen” (Bereziartua, 2017). Gutxira, 2009ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren jarraipena egiteko ikus-entzunezko programa estreinatu zuten (‘Hitzetik Ultzera’), atzetik gehiago ekarriko zituen ‘Beranduegi’ umorezko saioa), eta euren ekoizpenak ez ezik euskarazko laburmetraiak, hitzaldiak nahiz mahainguruak biltzen hasiko dira *Argia* Multimedia izeneko multimedia kanalean.

Lander Arbelaitzen iritzi XXI. mendeko *Argia* honek eman duen pausu garrantzitsuena webgune bat zuen aldizkari gisa funtzionatzetik proiektu komunikatibo gisa funtzionatzera emandakoa da: “Nire ustez dena aldatu duena hamarkada berriarekin benetan proiektu komunikatibo gisa pentsatzen hastea izan zen aldaketa teknologikoak ahuldu baino indartu egiten gaituela sinestea” (Arbelaitz, 2017). Bego Zuza bat dator berekin: “Gaur egun ezin daiteke ulertu paperekoa sarekorik gabe eta sarekoa paperekorik gabe” (Zuza, 2017). Arbelaitzek hasiera batean zenbait proiektu diru-laguntzetarako eskatzen zenari erantzunez eta laguntza horiek lortzearen planteatu zirela aitortzen du, baina denborarekin logika horrekin egindakoak alferrikakoak suertatzen direla eta proiektu orokorrari benetako onura ekartzen dioten ahaleginetan zentratzen ikasi dutela gaineratzen du. Multimedia kanaleko artxiboa jartzen du eredu gisa:

“Artxiboa osatzen hasi ginenean ez zegoen ETBren Nahieran ez antzeko ezer. Interneteko guruek esaten zuten bost minututik gorako piezek ez zutela balio, baino ez geunden ados, eta iruditzen zitzaigun interneteko euskal komunitatearentzat eskaintza interesgarri bat izan zitekeela (...) Koldo Mitxelena eta horrelakoetan grabatuta zeuzkaten hitzaldi guztiak eskatzen hasi ginen, eta astero euskarazko dokumental bat igotzen (...) la hirurehun dokumental dauzkagu, 200 hitzalditik gora... ongi funtzionatzen duen altxor bat, komunitateari zerbitzu bat eskainiaz gure proiektua indartu duena (...) Ez da egongo munduan paperetik datorren beste aldizkari bat horrelakorik egin duenik, baina euskararen komunitatea horren ertzekoa izanik, bada txapel berarekin bi buru estaltzeko aukerak sortzen dira (...)” (Arbelaitz, 2017).

Euskarrien konbergentziak erredakzioaren bateraketa ekarri du, ez dago lehen webgunea abiarazi zen urteetan bezala webguneen edukien sorkuntzara bakarrik jarritako inor. Gaikako lan-ildoari jarraituz kazetari bakoitzak bere gaia papereko nahiz webgunerako lantzen du eta sare-sozialetan zabaldu. Honek webgunean kanal tematiko sendoak sortzeko aukera ireki du batetik, eta hauen inguruan, sare sozialen bidez, gaien inguruko komunitateak garatu ahal izan dira,

bestetik. Kazetarien espezializazioa eta euskarri ezberdinen arteko sinergiak fin-
tzeko ere oso baliagarria izan da prozesua.

Beste maila batzuetan eman izan diren berrikuntzei ere hadi egon da *Argja*. Honela, krisiari aurre egiteko sektoreak garatu duen estrategia nagusietako bat, zerbitzuen dibertsifikazioa, aspaldi urratu zuen. Egun Ametzagaiña elkartearen bai-
tan txertatzen da argitalpena eta lau enpresek osatzen dute komunikazio taldea: Komunikazio Biziagoa (prentsa eta argitalpenak), Adur (software ingeniari-tza), Antza (grafikagintza eta komunikazioa) eta iametza (komunikazioa eta teknologia):

“Antzak hasiera batean Argiaren inprimatzeko sortu zen, baina egun denetik inprimatzen du. Gero aldizkaria informatizatzeko Adur sortu zen, eta honek ere bere zerbitzuak eskaintzen ditu... Azkenan dena sortu da Argiaren behar batetik baina gero bakoitzak bere ibilbidea egiten du. Eta osotasun ibilbide hori Argjari sostengu ekonomikoa lortzeko helburuaz egiten da aldi berean” (Zuza, 2017).

Produktuen dibertsifikazioari ere aspaldi ekin zitzaion. Honela, 1984an eus-
kal kulturaren inguruan urteak emandakoaren errepaso egiten zuen ‘Urtekarria’
abiarazi zen, eta 2016tik, gaitegia zabalduz eta errepaso soiletik lan sakonagoetara
jauzi eginaz, ‘Aktualitatearen Gakoak’ gisa kaleratzen da. 1985ean hasita (1995etik
1999ko etenarekin) *Larrun* argitaratzen da baita, gaurkotasan zabaleko gai baten
inguruko gogoeta eta arnas luzeko kazetaritza jorratzen dituen hileroko gehigarri
monografikoa³. ‘Argiaren Egutegia’ ere klasiko bat da, 1992tik kaleratzen da aldiz-
kariaren azken etapa honetan baina lehen Argiak 1922tik zuen berea (Intxausti,
2008: 246-251), eta mahai-jokoek nahiz liburuek ere egin dute euren bidea⁴.

Enpresa egituraren eta lan-taldearen antolaketan ere egin dituzte berrikun-
tzak. Kooperatiba bat da *Argja*, lan-taldeko kiderik gehienak, nahi izan duten guz-
tiak, bazkide dira betan, eta irabazi asmorik gabeko elkarte da proiektuaren
enpresa ezberdinak biltzen dituen (Ametzagaiña). Marko horren baitan, eta azken
urteetan baloreen inguruan burutu duten hausnarketaren haritik, 2014an antola-
keta erabat horizontal baten aldeko hautua egin zuten: “*Gerenteak utzi egin zuen
eta berri baten bila hasi beharrean beste planteamendu bat egitea erabaki genuen (...)
1990eko hamarralditik ginen ekonomia sozialeko enpresa bat, azken
hausnarketetan ekonomia sozial eraldatzailearen kontzeptua ere mahaigaineratu
zen eta horrekin koherentea zen zerbait bilatu genuen*” (Zuza, 2017). Soldatak eta
ardurak berdindu egin zituzten: “*Diferentzia ekonomikoa oso txikia zen baina ar-
durena handia. Ze klaro, gizakiok holakoak gara, nik baino euro bat gehiago ira-
bazten baldin badezu, zuk daukazu erantzunkizun guztia*” (Zuza, 2017). Ardurak
zituztenak pozik hartu zuten soldaten jaitsiera eta gainerakoak gogotsu agertu ziren
ardurak partekatzeke: “Ikusi zen talde osoa oso gaitua zegoela gauza pilo bat egi-
teko. Ardurak banatzeak ahaldundu egin zuen talde osoa eta aldi berean beste in-

3. Goikoetxea, Murua eta Ramirez de la Piscinaren lanak (2018: 54-55) euskarazko arnas luzeko ka-
zetaritzaren plaza garrantzitsu bat izan dela azpimarratzen du.

4. Jolasak 2006 inguruan hasi ziren merkaturatzen finantzaketa bide alternatibo gisa eta sei urteko ibil-
bidea izan zuen ekimenak (Olasolo, 2017). Liburuen artean azpimarratzekoa da Jagoba Errekondoren
‘Bizi baratzea’-ak (2015) izandako arrakasta 12.000tik gora ale salduta. Kolaboratzailearen zutabea le-
henengo liburu eta gero webgune bihurtu zen *Argiaren* eskutik.


plikazio maila bat lortu zen. One-rako izan zen bai lan-baldintzen aldetik eta baita emaitzen aldetik ere” (Bereziartua, 2017). Taldeka landu eta modu asanblearioan adosten dituzte ordutik alor ezberdinetako erabaki guztiak.

Euskarazko paperezko hedabideen ekoizpenaren %45a harpidetza sistemaren bidez banatzen da (Barandiaran, 2016: 24). Hedabide hauetako gehienak komunitateak sortu ditu, hain justu komunitatea indartzeko, eta konpromezu hori bideratzeko oso aproposa delako hartu du sistema honek horrelako garrantzia. Salmentak, publizitatea edo diru-laguntzak baino egonkorragoa denez, krisiaren gorabeherak leuntzeko ezinbestekoa suertatu da sektorearentzat, eta hedabide guztiak ahalegin handiak egin dituzte alor hau zaintzeko. *Argiak*, hemen ekarri du bere azken berrikuntza handia: harpideak berak erabaki dezake zenbat ordainduko duen eta ordaintzen duen horren trukean zer jasoko duen.

Aldizkariaren harpidetza zahartzen ari zela sumatua zuten aspaldidanik. Sa-rean gazte askoren arreta piztea lortu zutela ere ikusten zuten baina kosta egiten zitzaieela paperekoan harpidetzeko pausoa ematea. Beraz, 2016ko abenduan abiarazi zuten harpidetza erabat irekiaren formula honekin erraztasun guztiak eskaini nahi izan zaizkie: *“Honekin ixten da berrikuntzen zirkulua. Talde berria, eduki berriak, sareko eskaintza jende berria eduki horietara erakartzeko bide gisa eta harpidetza sistema berria jende horri paperekoaren atea irekitzeko”* (Zuza, 2017). Bestalde, izaera proiektuaren izaera komunitarioa sendotzea ere badakar planteamenduak:

“Herri ekimena izan da jatorriz proiektuaren izpiritua. Gero, proiektuaren garapenerako, enpresa mundutik ikasitako egiteko modu batzuk aplikatu dira luzaz: produktua, bezeroa, hornitzailea, merkatua... Denborarekin jatorriko izpiritua berreskuratu beharra nabaritu dugu, ordea. Izan ere, guk egiten duguna produktu bat baino gehiago da gure irakurleen-tzat, eta irakurleak bezeroak baino zerbait gehiago dira guretzat...” (Eizagirre, 2017).

Azken urteetan nahikoa ohikoak suertatu dira sektorean, enpresa egituraren eta lan-taldearen antolaketa findu, edota hedabidea sostengatzen duen komunitatearekiko harremanak bideratzeko formulazio berriak, baina *Argja*, euskarazko kazetaritzaren dekanoa, izan da alternatiba ausartenak abiarazi dituen (Alvarez, Aiestaran et. Al., 2008: 75 eta 77). Bego Zuzak euren tamainak esperimentatzeko eskaintzen dien abantaila aipatzen du azalpen gisa:



“Beti esan izan zaigu txikiegiak garela, etorkizunik ez zuela horrelako tamainako proiektu batek (...) Berriaren gehigarri izatera pasa beharko genukeela ere entzun diegu instituzioei (...) Txikitasun horrek, ordea, esperimentatzeko sekulako askatasuna eman digu. Enpresa handi batean ezinezkoa litzateke hartu duguna bezalako antolaketa horizontal bat, edo ezinezkoak lirateke geurea bezalako talde nahiz komunitate trinkotuak, harpidetza sistema irekiaren planteamendurako ezinbestekoak suertatu direnak (...) Konturatu gara txikia izatea ez dela hain txarra” (Zuza, 2017)

‘Kazetaritza independentea. Txikitik eragiten’ hartu dute proiektuaren aldari nagusi gisa.

4. Dimentsioak, kalitate-indizeak, ekarpen soziala eta etorkizuna

Esan bezala 27 lagunek osatzen dute Argiaren lan-taldea. Hamasei ekoizpen lanetan dabilta (erredakzioa, diseinua eta argazkiak), sei komertzial lanetan (harpidetzak eta salmenta) eta bost kudeaketa nahiz administrazioan. Lan-taldeak berak eskainitako datuen arabera 2016ko aurrekontuaren %56a hartzen zuten pertsonal gastuek, 2008koan baino %13 gehiago. Datu honen atzean lan-taldea egonkortzeko egindako ahalegina suma daiteke. Sarreretan, aldiz, diru-laguntzak aurrekontu osoaren %36 izan ziren 2016an 2008an baino %2 gutxiago. Datu hau 2016an jasotako 385.000 eurotako diru-laguntzen kopuruarekin erkatzen bada, aurrekontu osoa milioi bat eurotik gora egon daitekeela ondoriozta daiteke⁵.



Lortu diren audientzia datuak ere partzialak dira, baina proiektuaren dimentsioetara gerturatzeko lagungarri izan daitezke. Hamarkada honen hasieran paporeko aldizkariak 10.500 aleetako tirada eta 8.000 harpide zituela jasotzen dute Arana, Amezaga eta Azpillagak (2010: 34). Paporeko horrek 36.000 irakurleko audientzia zuen zenbakiko 2016ko CIESaren arabera. Sareko trafikoari dagokionez hekimenanalytics neurgailuaren arabera 2018an 1.684.429 saio izan zituen argia.eus-ek, 2016an baino %16 gehiago. 2018an baita, honako jarraitzaile kopuruak zituen sare sozialetan (Goikoetxea, Murua eta Ramirez de la Piscina, 2018: 55): Telegram (1.508), Twitter (36.000), Facebook (23.385) eta Instagram (5.754).

5. Jaurlaritzaren diru-laguntzei buruzko datua da, honen boletinetatik hartutakoa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaren datua gehituta zerbait handiagoak izango dira kopuruak.

Euskal prentsaren ekosistemaren baitan oso garrantzitsuak dira dimentsio hauek. Sareko trafikoa dagokionean, esaterako, Berria eta Goiena dira bolumen handiagoak mugitzen dituzten bakarrak. Ez dago ukatzerik, ordea, euskararen komunitatetik at, lan-taldeari, aurrekontuari eta audientziei dagokionean proiektua, taldeak berak dion bezala, txikia denik. Horregatik, meritu handikoa suertatzen da 'Evolución de la calidad de las noticias en los medios europeos de referencia (2000-2014) ikerketa proiektuaren emaitzetan Argiaren kalitate-indizeak askoz ere handiagoak diren medioek dituztenen parean edo gainetik aurkitzea⁶.

Europar erreferentziakotzat jotzen den prentsak (*Financial Times*, *Le Monde*, *Frankfurter Allgemeine Zeitung*, *Corriere della Sera*, eta *El País*) batez beste 5,39ko kalitate indize bat eman zuen, aztertutako aztertutako euskal prentsaren batez bestekoa (*Argia*, *Berria* eta *Goiena*) 5,07koa, eta *Argiak* bere kabuz atera zuena 6,23koa (Aiestaran, Agirre et. al.: 52)⁷.

Indize hauek neurtzeko garatutako metodoak albisteen hautaketa, lanketa eta gizarte-ekarpena baloratzen zituen, atal bakoitzean hainbat aldagairi parametroi erreparatu⁸. *Argiak*, informazioaren hautaketan, 2,5 puntutik 1,64 lortu zuen, euskal batez bestekoaren (1,53) gainetik eta europarraren (1,77) azpitik dagoen balioa zen. Testuen gaurkotasan baxua izan zen gehien penalizatu ziona (0,5etik 0,11) astekaria izanik normalizat har daitekeena. Informazioaren jatorriaren eta informazio iturrien zehaztapenean, bestalde, balekotzat jotzen zen *Argiaren* lana (bietan 0,3 puntu 0,5etik), eta balio altuena gertagarritasunean erakusten zuen (0,45 puntu 0,5etik) informazioaren oinarritzat gertakariak, eta ez adierazpen edo espekulazioak, hartzen dituenaren seinale (Aiestaran, 2015: 88).

Informazioaren lanketan, berriz, Alemaniako *Frankfurter Allgemeine Zeitung* izan zen 5etik 3,44ko balioarekin *Argiaren* balioaren (3,19) gainetik gelditu zen bakarra. Astekari serio bati dagokion moduan informazioak sakontasunez eta zehaztasunez lantzen dituela, informazioa osatzeko ohikoan ikuspegi bat baino gehiago

6. UPV/EHUko GHG ikerketa taldeak burutu zuen ikerketa proiektu hau ere. Kasu honetan 2012tik 2014ra luzatu zen lana, MINECOren finantzaketa izan zuen eta CSO2011-23237 kodea esleitu zitzaion. Kazetaritzaren kalitatearen inguruan literatura akademiko germaniar eta anglosaxoitik jasotako ikerketetan oinarriturik, albisteen albisteen kalitate-indizea neurtzeko metodo bat garatu zuen taldeak, eta metodo honetaz baliatuz Euskaldunon Egunkaria-Berria, Argia eta Goienaren edizio digitalak nahiz paperekoak aztertu ziren 2001-2013 artean, lortutako emaitzak, Europako erreferentziako bost egunkariaren gaineko neurketetan —*Financial Times*, *Le Monde*, *Frankfurter Allgemeine Zeitung*, *Corriere della Sera*, eta *El País*— lortutakoekin alderatuz. Guztira Europako medioen 1.137 item aztertu ziren eta euskal medioen 488 item.

7. Erabilitako metodologiaren egiturak mesede egin ziren, ezbaierik gabe, Argiaren emaitzei, astekaria izanik asteko testu nagusia bakarrik aztertu baita, egunkariaren kasuan azaleko nagusia eta bigarren mailako bi albiste aztertzen ziren bitartean. Bere aldizkakotasunak eta formatuak laginera testu landuagoak ekarri zituen, bada, baina edozein kasutan lortutako emaitzak oso onak izan ziren.

8. Hautaketa prozesuan informazioaren jatorriaren zehaztapena, iturrien nortasuna, albisteen gertagarritasuna, gaurkotasan maila eta albistegarritasuna. Lanketa prozesuan, aldiz, zehaztasuna, sakontasuna, ikuspuntu ezberdinen presentzia, informazio elementu osagarrien nolakotasuna eta kazetaritza hizkeraren zuzentasuna. Azkenik, ekarpen sozialari dagokionean aginteari kontrola, eztabaida publikoaren sustapena, giza duintasunaren errespetua, gutxiengoei emandako ikusgarritasuna eta gizarte-bazterkeria borrokatzea.

erabiltzen duela, kazetaritza estilo argia darabilela eta akats gutxi eskapatzen zaizkiola erakutsi zuen balio honek. Azkenik, gizarte ekarpenari zegokionean inork baino balio altuagoa erakutsi zuen euskal astekariak 2,5 puntutik 1,4rekin. *Berria* (1) eta *Corriere de la Sera* (0,93) izan ziren hurrenez hurren gehien gerturatu zitzaizkionak (Aiestaran, Agirre et. al., 2015: 53; Aiestaran, 2015: 86). Agintarien kontrolaren funtzioa (0,5etik 0,29) eta eztabaida publikoaren sustapena (0,5etik 0,4) izan ziren atal honetan aldizkariaren indargune nagusiak. Datu hauetatik Argia pentsamendu kritikoa garatzen eta zabaltzen duen kazetaritza egiten saiatzen dela ondoriozta daiteke.

Azken alor honetan horren balio altua lortu izana ongi ezkontzen da lan-taldeak aldizkariaren funtzio sozialaren garrantziaren inguruan egin duen lanketarekin. Kazetaritza konprometituaren aldeko apustu argi batera lerratu eta norbere agenda modu kontzienteago batean garatzera eraman dituen prozesuarekin azpimarra ekarpen sozialean jartzea bilatu dute, hain justu. Iragarleek edo instituzioek egin diezaieketen presioaren inguruan, esaterako, honela dio Estitxu Eizagirre zuzendariak: *“Isiltzeak ekar dezakeen galerak ez dauka preziorik. Beti saiatzen gara egiten dugun funtzio soziala beste guztiaren aurretik jartzen. Ekonomikoki independenteak ez garenez eman daiteke autozentsuraren bat modu inkontzientean, baina kontzienteki behintzat oso zorrotzak gara gure funtzioa lehenestearekin”* (Eizagirre, 2017). Lander Arbelaitzek, aldiz, funtzio soziala eta komunitatearen arteko loturan jartzen du azpimarra: *“Hori da klabe garrantzitsua, komunitatea trinkotzea zure inguruan eta funtzio sozial bat betetzea. Funtzio sozial bat betetzen duzun momentutik jendeak egiten ari zarena eskertu egingo du, eta hortik aurrera proiektu kolektibo bihurtzen da zure proiektua”* (Arbelaitz, 2017).

Argitalpenen testuetan ahotsa eta presentzia ematen zitzaizen kolektiboaren analisiak ere hainbat zantzu eskaintzen zituen argitalpen hauen posizionamenduen inguruan. Deigarria suertatzen da *Argia* izatea estatuko erakundeei (%2,38) eta gobernuari (%5,95) protagonismo gutxien eskaintzen diena. Estatuko erakundearen presentzia %19,3koa da *Le Monden* eta %18,33koa *El Paísen*, esaterako, eta gobernuaren presentziak bi digitutatik gorako presentzia du *Argia* ez beste argitalpen guztietan. Aitzitik, *Argiak* ematen ditu portzentaje altuenak gizarte eragileak (%13,1) eta kultur eragileak (%14,19) protagonistatzat hartzerakoan. Fokua gizarte eragileengan jartzen *Goiena* (%9,95) gerturatzen zaio gehien eta *Frankfurter Allgemeine Zeitung* (%10,14) kultur eragileei ahotsa ematerakoan (Aiestaran, 2015: 112).

Baztertutako taldeei protagonismoa ematen bigarrena da *Argia* (%15,48), *Le Monderen* (%17,9) atzetik (Aiestaran, 2015: 115). Protagonista emakumea den testuen portzentajearen ere, argitalpen guztien kasuan bezala oso balio baxua eman arren, bigarrena da (% 7,14) *Goienaren* (%8,26) atzetik (Aiestaran, 2015: 116).

Azkenik, aipatu ikerketak aztertutako euskal medioek ekarpen sozialaren atal honi ematen dioten garrantzia orokorra dela erakusten duela. Euskal medioen batez bestekoa 0,97koa da eta Europar erreferentzialak diren hedabideena 0,69koa (Aiestaran, Agirre et. al., 2015: 52). Balio amankomun honen atzean euskal medioen ertzekotasuna egon daiteke batetik. Bistakoa da botere guneekin igurtzi gutxiago dutela Europako egunkari erreferentzialek baino, eta hori jarrera kritikoago baten mesedetan ematen dela. Bestalde, euskal hedabidearen izaera komunita-

rioak komunitateari egin beharreko ekarpena lehen planoan jartzera dararatzala ere iradoki daiteke, aurrekoarekin osagarria den azalpen gisa⁹.

Etorkizuneko erronka nagusiei buruz galdetuta proiektuaren iraupena da Argiaren lantaldeko kideen mahaigainetzen duten lehenengoa. Honela dio, esaterako, Bego Zuzak: “Lehenbizikoa irautea da, hurrengo urteko aurrekontua osatzea, aukera izatea hemen gauden lankide guztiok leku bat izaten jarraitzeko. Bigarrena, lanera etortzea baino disfrutatzea etortzea, egiten dugunarekin disfrutzea. Eta azkenik hemendik kanporako bizitzarekin bateragarria den planteamendu bat izatea” (Zuza, 2017). Iraun bai, beraz, baina bizipozetik eta gaurkoan zentratuturik: “Gorakak (Bereziartua) esaten du gurea

dela borrokaren poza. Gu oso ongibizi gera. Esku artean daukaguna asko gustatzen zaigu gainera (...) Entengabe entzuten dira 20 urtetarako plan estrategikoak. Etorkizuna hemen dago, gaur egiten dugun lanean” (Zuza, 2017).

Taldearen antolaketa eta funtzionamendu eredu berriaren garapenarekin jarraitu beharra aipatzen du Bereziartuak: “Barrura begira hasi genuen horizontaltze bide honek ez dauka mugarik berez eta hor egin ahala ari gara ikusten erronka berriak sortzen dituela” (Bereziartua, 2017). Ez dute inolaz ere hartutako bidea uzteko asmorik: “Balioak praktikan jartzeko dira, baina ez soilik kazetaritza lanetan baita gure antolatze moduan, lan egiteko moduan, gure arteko harremanetan... Ze alderdi horietan aplikatzen ez badira balio horiek gezur bat bihurtzen dira” (Eizagirre, 2017).

Komunitatea elikatzea da guztiok aipatzen duten beste erronka garrantzitsua bat: “Irautea beti da helburua baina geroz eta gehiago eragitearen, geroz eta jende gehiagorengana iristearen ambizioa nabarmen sumatzen dut taldean. Komunitatea trinkotzen eta zabaltzen saiatzea ezinbesteko erronka bat da” (Eizagirre, 2017). Ildo honetan 2014tik urteroko ‘Argia Eguna’ komunitatearen topaketa gisa antolatzen dute, eta aldizkarian ‘Argia Komunitatea’ izeneko atal finkoa eskaintzen dute:

9. Ikerketa proiektu beraren baitan inkesta bat egin zitzaizen irakurleei euren kontsumo ohituren inguruan. Euskal Herriko 200 laguni helarazi zitzaizen galdetegia eta Espainian, Frantzia, Italian, Alemanian eta Britainia Handian bakoitzean beste ehuni. Emaitzek hedabide komunitarioek egiten duten ekarpen sozialaren ordaina erakusten zuten: Euskal Herriko irakurleek bere hedabideekiko fideltasun handiagoa eta sareko edukiengatik ordaintzeko prestutasun handiagoa erakusten zuten Europako gainerako herrialdeetakoek baino (Agirre, Aiestaran eta Zabalondo, 2015: 122).



“Kontua ez da norbaitek eros dezan bukatutako produktu bat eskaintzea, norbait hori proiektu baten parte sentiaraztea baizik. Horretarako ematen dugu atal horretan gure jardunaren berri: Diagonalekoekin elkarlan bat abiarazi behar dugula, ikerlari batzuk etorri zaizkigula bisitan...” (Eizagirre, 2017).

Bereziartuak funtsezkotzat jotzen du komunitatearekiko kanalak irekita: “Sinesgarritasuna da medio handiekiko daukagun abantaila handiena. Sinesgarritasun horri eusteko behin eta berriro erakutsi behar dugu komunitatearen zerbitzura gaudela, eta horretarako hadi egon behar dugu irakurleengandik iristen zaizkigun mezu guztiei” (Bereziartua, 2017). Eta Arbelaitzen iritziz sarea da horretarako bi-tarteko egokiena:

“Bidea da ekonomia sozialaren inguruan lanean ari den kazetaria geroz eta finago aritzea eta sarean daukagun argia.eus/ekonomia gai horretan interesaturik dagoen jendearen topaleku bihurtzea. Eta berdin egitea jorratu nahi ditugun gai guztiekin: argia.eus/feminismoa, argia.eus/hezkuntza... Komunitate horien guztien topaleku izatea lortzen duen bitartean bizirik egongo da proiektua” (Arbelaitz, 2017).

Baloretan oinarritutako kazetaritza eta norbere gaitegia, ekarpen soziala, komunitatearekiko lotura, paperekoa eta sarekoaren arteko osagarritasuna, kalitatea... hainbat dira Argjaren proiektuak bere etapa berrian egindako apustuaren gakoak. Eta lantaldea hartutako bidean aurrera egiteko gogotsu ageri da.

Baikortasuna dario proiektuari. Lantaldeko kideei ilusioa nabari zaie etorkizunaren aurrean. Lander Arbelaitzek, esaterako, Clay Shriky amerikarraren hitzak ekarri zituen EHUn 2013an ospatutako ‘Kalitatezko kazetaritzaren etorkizuna’ jardunaldietan emandako hitzaldian:

“Irakurri nion inprentaren asmakuntzak 200 urtetako kaosa ekarri zuela; ideien lurraldea, ordura arte Eliza Katolikoak kontrolpean zeukana, zitzu bizian hasi zen eraldatzen (...) Internetekin antzeko zerbait ari dela gertatzen, eta ezagutzen dugun ideien mundua hankaz gora jarriko duela hurrengo 50 urtean (...) orain hedabideak kontrolatzen dituzten botere-
retsu askori egoera dezente konplikatu zaie eta kostako zaie sarea kontrolatzea (...) lanbide honetan sinesten dugun kazetariok 50 urte behintzat baditugu gauza interesgarriak egiteko” (Agirre, 2015: 218).

Egindako bidea da baikortasun hori sostengatzen duena eta aldizkariaren ibilbide historikoak berak ere ematen du etorkizunean aurrera egiten egoskortzeko motiborik:

“Askotan esan digute etorkizunik ez duela Argiak, lehenago edo geroago desagertu egingo dela, baina hemen gaude, asmatu dugu orain arte aurrera egiten eta laster, 2019an, ehun urte egitera goaz. Ez dakit hemendik hogeitaz urtera proiektuak zein forma izango duen, baina garbi daukadana da ez garela gu izango hau itxiko dutenak” (Zuza, 2017).

5. Erreferentziak

AGIRRE, Antxoka; AIESTARAN, Alazne; eta ZABALONDO, Beatriz. "Euskal Herriko eta Europako kazetari eta prentsa irakurleak lanbidearen geroari begira; Adostasun eta desadostasunen bilduma". *Zer*, 20. liburukia, 39. zenb., 2015, 101-125 orrialdeak.

AGIRRE, Antxoka. "Gogo berrituak partekatzeke bi egun". Non: *Kalitatezko kazetaritza: Ba al dago etorkizunik?*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2015, 205-276 orrialdeak.

AIESTARAN, Alazne. "Euskal eta Europako prentsaren kalitate-indizeak aurrez aurre". Non: *Kalitatezko kazetaritza: Ba al dago etorkizunik?* Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2015, 78-149 orrialdeak

AIESTARAN, Alazne; AGIRRE, Antxoka; ET. AL. "La evaluación de la calidad de las noticias en la prensa vasca, en comparación con la prensa europea de referencia". Non: *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, 21. liburukia, azaroko zenb. berezia, 2015, 47-62 orrialdeak.

ALTZIBAR, Xabier. "Euskalzale eta Ibaizabal Billboko asterokoak". Non: *Bilbao. El espacio lingüístico. Simposio 700 aniversario*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2002, 253-266 orrialdeak.

ALVAREZ, Amaia; AIESTARAN, Alazne; ET. AL. "Euskarazko eta katalanezko hedabideen joera berritzaileak". Non: *Euskal Hedabideen urtekaria 2017*. Durango: Euskal Hedabideen Behatokia, 2017, 67-80 orrialdeak.

APM. *Informe anual de la profesión periodística 2013*. Madril: Asociación de la Prensa de Madrid (APM), 2014.

ARANA, Edorta; AMEZAGA, Josu; eta AZPILLAGA, Patxi. *Los medios de comunicación en euskera*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2010.

BARANDIARAN, Alberto. "Datutegia sektoreak eta akademiak behar zuten datu oinarria". Non: *Euskal Hedabideen urtekaria 2016*. Durango: Euskal Hedabideen Behatokia, 2017, 17-22 orrialdeak

DÍAZ NOCI, Javier. *Argja, euskal astekari baten historia (1921-1936)*. Doktorego-lana. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1989.

DÍAZ NOCI, Javier. "Gerra aurreko irratia: lehenengo urratsak". Non: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1991, 37. liburukia, 2. zenbakia, 365-374. orrialdeak

DÍAZ NOCI, Javier. *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.

DÍAZ NOCI, Javier. *Historia del periodismo vasco, 1600-2010*. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012.

GARMENDIA, Elixabete. "Argja-ren mugarria". *Berria*, 2019ko ekainaren 9, <https://www.berria.eus/paperekoa/1957/024/001/2019-06-09/argja-ren-mugarria.htm>

GOIKOETXEA, Udane; MURUA, Imanol; eta RAMÍREZ DE LA PISCINA, Txema. "Amas luzeko kazetaritza euskal hedabideetan: egungo esperientziei errebasoa". Non: *Euskal Hedabideen urtekaria 2018*. Durango: Euskal Hedabideen Behatokia, 2017, 49-66 orrialdeak.

INTXAUSTI, Joseba. "Euskal almanaka eta egutegiak (1815-2006)". *Iker*, 21. zenb., 2008, 241-280 orrialdeak.

KINTANA, Jurgi. *Intelektuala nazioa eraikitzen : R. M. Azkueren pentsaera eta obra*. Bilbao: Euskaltzaindia, 2008.

RAMÍREZ DE LA PISCINA, Txema; AGIRREAZALDEGI, Teresa. "Euskaldunon Egunkaria: diario de referencia de la cultura vasca". *Zer*, 14 liburukia., 26. zenb., 2009, 185-209 orrialdeak.